



**EBAZPENA, 2019ko martxoaren 1ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, hurrengoa arautzen da 2019/2020 ikasturterako: zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak baimentzea osasun arrazoiak direla eta.**

*Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen xedea da beharrezko bermeak eta erantzukizunak finkatzea, lan-baldintzetatik eratorritako arriskuen aurka, langileen osasuna maila egokian babes dadin. Gainera, xede horrek bat etorri behar du lan-arriskuak prebenitzeko politika koherente, koordinatu eta eragingarriarekin.*

Berme horien artean, zehazki, 25. artikulua langile jakin batzuen babesaren bermea ezartzen du, hain zuzen ere ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezagunak direla-eta, lanak eratorritako arriskuen aurrean bereziki sentiberak diren langileen babesaren bermea, desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko egoera aitortu zaien langileena barne.

Horri dagokionez, Hezkuntza Sailak langileen osasuna babestera bideratutako hainbat jardun egin ditu laneko arriskuen Prebentzioaren arloan, eta jardun horietako bat deialdi hau da.

Deialdi hau gauzatzearen ondorioz egon litezkeen administrazio-egoerei dagokionez, zerbitzu-eginkizunak aipatu behar dira. Zerbitzu-eginkizunak lanpostuak betetzeko ezohiko modu gisa konfiguratuta daude *Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 54. artikuluan*, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 12. artikuluan*.

Bestalde, lan-baldintzak arautzen dituen akordio horren 61. artikuluko bosgarren eta seigarren ataletan bilduta dagoenez, irakastorduen herena murriztu dezakete, gehienez ere bi urtez, osasun-arazo larriak dituztela-eta ohiko irakasle-lanetarako zailtasunak dituzten irakasleek.

Deialdi honen lehentasunezko helburuetako bat da, osasun-arrazoien ondorioz lanpostuak aldi baterako egokitzeari dagokionez, aldi baterako irtenbidea ematea, osasun-arazoa iragankorra dela eta langilea osatzeko aukera badagoela irizten zaion kasuetan.

Era berean, deialdi honen helburua da, salbuespenezko egoera jakin batzuei irtenbide bat ematea, hala nola senitartekoen gaixotasun larriaren ondoriozko zerbitzu-eginkizunak, eta langileek kargu hautetsietan jardutearen ondoriozko zerbitzu-eginkizunak.

Beraz, Hezkuntza Sailak, salbuespenezko izaeraz, zerbitzu-eginkizunak/lanaldi-murrizketak barnean hartzen dituen prozedura urtero deitzen du, eginkizun eta murrizketa horiek emateko baldintzak zehaztuta, betiere beren sorkuntza-helburua ez den beste ezertarako balia ez daitezen.

Horren arabera, eta *Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretuak 10. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta,*

**EBATZI DUT:****LEHENENGOA.- PARTE HARTZEKO MODALITATEAK**

Honako zerbitzu-eginkizun eta klase-orduen murrizketa hauen prozedura deitzea:

- 1.- Osasun-arrazoi larriengatik zerbitzu-eginkizunetan lanpostu bat baimentzea.
- 2.- Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, ohiko irakaskuntza-lanean aritzea zailtzen duten egoeretan.
- 3.- Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.
- 4.- Senideen gaixotasun larriengatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.
- 5.- Hautetsia izategatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

**BIGARRENA.- PARTE-HARTZAILEAK**

Honako hauek har dezakete parte deialdi honetan:

- 1) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako karrerako funtzionarioek lehenengo artikulua ezarritako modalitateetan parte hartu ahal izango dute.
- 2) Praktikaldian dauden funtzionarioek lehen artikulua ezarritako modalitateetan parte hartu ahal izango dute, betiere 2019/2020 ikasturtean karrerako funtzionarioak badira.
- 3) Ikasturte osoko lanpostua betetzen duten bitarteko funtzionarioek lehen artikulua 2. idatz-zatian deskribatutako modalitateetan parte hartu ahal izango dute, betiere 2019/2020 ikasturtean ikasturte osoko lanpostua lortzen badute.
- 4) Salbuespenez, lan-legepeko irakasle finkoek edo erlijio kategoriako lan-kontratu mugagabedunek deialdi honek irekitzen duen epean bere eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu beste Administrazio Publikoen mendeko funtzionarioek, bere eremu subjektibotik kanpo geratzen baitira.

**HIRUGARRENA.- BALDINTZAK**

- 1.- Zerbitzu aktiboko egoeran egotea, *Euskal herri-administrazioetako funtzionarioen administrazio-egoerei buruzko araudia onartzen duen azaroaren 11ko 339/2001 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera*; edo lanpostua gordetzea dakarren egoera administratiboren batean egotea, eginkizun-gabetzea izan ezik.
- 2.- Behin betiko edo behin-behineko destinoa Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatekanpoko ikastetxe publikoetan izatea, bigarren artikulua 3. puntuan parte-hartzaileei buruz ezarritakoari utzi gabe.
- 3.- 2019/2020 ikasturterako beste zerbitzu-eginkizunik onartuta ez izatea.

Ikasturte horretarako beste zerbitzu-eginkizun bat lortzen bada, bi lanpostuetako bat emango da, hezkuntza-sistemaren premiak aintzat hartuta.

## **LAUGARRENA.- MODALITATE BAKOITZEAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

### ***1.- Osasun-arrazoi larriengatik zerbitzu-eginkizunetan lanpostu bat baimentzea.***

Langileak egoera hori exijitzen edo bidezkotzen duen moduko gaixotasun larria duenean, zerbitzu-eginkizun bidez kidego bereko irakasle-lanpostu bat esleitzea baimenduko da, lanpostu horren ezaugarriak eta lanpostu hori betetzeko baldintzak eskatzailearen premiekin bat badatoz.

Honako aukera hauek aztertu ahalko dira:

- 1.1.** Eskatzaileak bere behin betiko destinoko ikastetxean eskatzen du zerbitzu eginkizuna.
- 1.2.** Eskatzaileak behin betiko destinoko ikastetxea ez den beste ikastetxe batean eskatzen du zerbitzu eginkizuna.
- 1.3.** Behin betiko destinatorik ez duen eskatzailea.

Oro har, eskatzaileari azken lekualdatze-lehiaketan parte hartu izana eskatuko zaio, lehiaketaren deialdian ezarritakoaren arabera egiteko aukera izan badu, duela gutxi bat-batean sortutako egoerak izan ezik.

### ***2.- Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, ohiko irakaskuntza-lanean aritzea zailtzen duten egoeretan.***

Modalitate honetan onartzen den murrizketa, urtero eta gehienez 2 ikasturtetarako onartu ahal izango da, beti ere dagozkion deialdietan parte hartuz gero. Murrizketa hau onartzeko arrazoiak mantentzen badira, Balorazio-batzordeak (zazpigarren artikulua) hirugarren ikasturte batean onartzeko aukera baloratuko du.

Aldi baterako murrizketan 2 ikasturte edo gehiago daramatzen zehazteko, azken 10 urteak hartuko dira kontuan eta azken urtea azken 3 ikasturteetan zehar izan behar da.

Aldi baterako baimen honek bere onuradunentzat eragina izango du erretiroa hartzeko aukera izan dezaketen unera arte, 2019/2020 ikasturtean zehar euren adina dela-eta erretiroa burutzen denean.

Ezingo dute modalitate honetan parte hartu euren adina dela-eta 2018/2019 ikasturtean zehar erretiroa hartu ahal izan duten pertsonak.

Atal honek arautzen duen Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketa aldi baterako baimentzea, bateraezina izango da 2018ko maiatzaren 14ko Irakasle Funtzionarioen Mahaiak jasotzen duen adinagatik klase-orduak murrizteko baimenarekin.



### **3.- Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.**

Modalitate honetan zuzenean eskolak ez emateko eginkizunetan aritzeko esleipena, beti ezohikoa izango dena, dagozkion urteroko deialdietan parte hartzearen bidez onartuko da, eta gehienez bi ikasturterako.

Baimen honek bere onuradunentzat eragina izango du erretiroa hartzeko aukera izan dezaketen unera arte, 2019/2020 ikasturtean zehar euren adina dela-eta erretiroa burutzen denean.

Salbuespenez, 2 ikasturte baino luzeagoko iraupenarekin egoera honetan mantentzea onartu ahal izango zaie jarraian azaltzen diren egoeren arteko batean daudenei, beti ere Hezkuntza Sailaren Zerbitzu-Medikoaren edo Prebentzio-zerbitzuaren txostenek horrela adierazten badute:

- 2019/2020 ikasturtean zehar adina dela-eta erretiroa hartuko duten parte-hartzaileei, erretiroa hartzeko aukera izan dezaketen unerarte.
- Behin betiko ezintasuna baloratzeko prozesuan dauden, edo prozesuaren hasiera eskatu duten pertsonen. Kasu hauetan, deialdi honetarako eskabidearekin batera, dagokion erakundearen aurrean Behin betiko Ezintasuna onartzeko aurkeztutako eskabidearen kopia aurkeztu beharko du interesdunak.

Ezingo dute modalitate honetan parte hartu euren adina dela eta 2019/2020 ikasturtean zehar erretiroa hartu ahal izan duten pertsonak.

Kasu bietan, Hezkuntzako Ikuskaritzak gauzatutako eginkizunei buruzko txosten deskribatzailea burutuko du.

Azkenik, dagokion erakundeak emandako baloratzeko espedientearen txostenaren emaitza Behin betiko Ezintasunaren kontrakoa balitz eta Hezkuntza Sailaren Zerbitzu-Medikoaren edo Prebentzio-zerbitzuaren txostenek egoki ikusten badute, 2019/2020 ikasturteari begira irakaskuntza ez diren eginkizunetan zuzenean eskolak ez emateko esleipena berriz aztertuko da.

Eskatzaileak 2 urte baino gehiagoz osasun arazo larriengatik zuzenean eskolak eman gabe daramatzen kasuetan eta dagokion erakundeak igorritako Ezintasun Iraunkorrerako kontrako txostena dagoenean, kontrako txostena igorri denetik 3 urte igaro badira beste balorazio txosten bat eskatu beharko du. Eskatzaileak honekin batera eskaera horren kopia aurkeztu beharko du.

Balorazio txosten berria egiteko eskaera ahal dela ezarritako eskaera epean aurkeztuko da. Dena den, salbuespen gisa dokumentu hori 2019ko martxoaren 31ra arte aurkeztu ahal izango da jatorrizko eskaerari eransteko.

### **4.- Senideen gaixotasun larriarengatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.**

Salbuespenezko baimentze modalitate honen barnean, zerbitzu-eginkizunetan jarduteko baimena eman ahal izango da lehen mailako goranzko edo beheranzko odolkidetasunezko senitartekoren batek, edo ezkontideak, edo behar bezala egiaztatutako bikotekide egonkorrek gaixotasun larria badu, betiere gaixo hori eskatzailearekin bizi bada eta eskatzailearen laguntza behar badu.

Aurreko parrafoan ezarritakoaren ondoretarako, legez adoptatuak edo legez hartutakoak izan diren seme-alabak beheranzko lehen mailako senidetzat hartuko dira.

Halaber, pertsona baten legezko tutoretza duten irakasleak, pertsona horren aita eta ama direla iritziko da zerbitzu eredu hau eskatzerakoan beti ere elkarbizitza badago.

Zerbitzu-eginkizun honen helburua lanpostua eskatzailearen egungo bizilekura hurbiltzea da.

#### **5.- Hautetsia izateagatik zerbitzu-eginkizunak baimentzea.**

Salbuespenezko baimentze modalitate honen barnean, zerbitzu-eginkizunetan jarduteko baimena eman ahal izango zaie toki-korporazioetan kargu hautetsietan jarduten dutenei, karguaren tokia eta beraien lanpostua ahalik eta hurbilen egon daitezen, betiere *abenduaren 26ko 53/1984 Legeak*, Administrazio Publikoaren zerbitzuko pertsonalaren bateragarritasunen erregimenari buruzkoak, xedatutakoa betetzen bada. Aurten, Salbuespen gisa, ekainaren 14ra arte onartuko dira eskaerak.

#### **BOSGARRENA.- ESKAERA**

1.- Interesdunek horretarako Hezkuntza Sailaren web-orrian eskuragarri dagoen ereduan eskabidea aurkeztu beharko dute.

Eskabide horiek Lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira, edo *Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan* aurreikusitako edozein erregistrotan.

Deialdi honen kudeaketa ondorioetarako, eta bere konfidentzialtasuna bermatzeko, dokumentazio mediko guztia gutun-azal itxian aurkeztu beharko da.

2.- Eskabideak aurkezteko epea 2019ko martxoaren 15era arte izango da, egun hori barne. Epea deialdi hau Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

3.- Deialdi honetan onartutako zerbitzu-eginkizunari uko egin ahal izango zaio, 2019ko maiatzaren 31era arte soilik (egun hori barne).

Emandako zerbitzu eginkizunari uko egitea organo eskudunak onartu beharko du.

4.- Deialdi honetan aurreikusten diren modalitateen artetik soilik bat eskatu ahalko da, euren artean bateraezinak direlako.

Modalitate bat baino gehiago eskatuz gero, hamar laneguneko epean eskabidea zuzentzea eskatuko da. Zuzenketa egiten ez bada, parte-hartzailea prozesutik kanporatuta geratuko da.

#### **SEIGARRENA.- BALORAZIO PROZESUA**

##### **Modalitate espezifiko bakoitzaren prozesua**

##### **1. Norbere osasunagatiko arrazoiak (1., 2. eta 3. modalitateak)**

Prebentzio-zerbitzuak dagozkion balorazio-txostenak emango ditu.



Salbuespenez, horretarako inguruabarren ondorioz dagokion Prebentzio-zerbitzuak ezin badu txosten hori egin, dagokion Lurralde-ordezkaritzako Zerbitzu-Medikoak egin ahal izango du.

Norbere osasun-arrazoiengatiko eskaerei dagokienez, dagokion Lurralde-ordezkaritzako Zerbitzu-Medikoak aldi baterako ezintasunaren segimendua egin badu, Zerbitzu-Mediko honek proposamena biltzen duen txostena helaraziko dio, hala badagokio, Prebentzio-zerbitzuari.

## **2. Senideen gaixotasunagatiko arrazoiak (4. modalitatea)**

Dagokion Lurralde-ordezkaritzako Zerbitzu-Medikoak modalitate honi dagozkion balorazio-txostenak emango ditu, senideen gaixotasunari dagokionez.

### **Prozesu bateratua**

- Modalitate espezifiko bakoitzari dagokion prozesua egin eta gero, Lurralde-ordezkaritzek dagokion Balorazio-batzordeari eskabide bakoitzari buruzko informazioa bidaliko diote.
- Dokumentazioa bidali aurretik Lurralde Ordezkaritzek eskabideren baten dokumentazio falta antzemango balute, eskatzaileari eskatu beharko diote.

## **ZAZPIGARRENA.- BALORAZIO-BATZORDEA**

1.- Lurralde-ordezkaritza bakoitzean Balorazio-batzorde bat sortuko da, eta bere kideak ondokoak izango dira:

- Lehendakaria:
  - Langileak Kudeatzearen arduraduna, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Batzordekideak:
  - Lurralde-ordezkarria, edo hark eskuordetutako pertsona.
  - Sailaren Zerbitzu-Medikoaren arduraduna; egoki irizten badio, lurraldeetako arduradun medikoen laguntza izan dezake.
  - Dagokion Lurralde-ordezkaritzako pertsonaleko burua.
  - Hezkuntzako Ikuskaritzako lurralde-burua, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Idazkaria:
  - Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat.

Bestalde, Balorazio-batzordean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza publikoaren esparruan behar besteko ordezkari bat duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bana egon ahal izango da, hitzarekin baina botorik gabe.

2.- Deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak dagokion Balorazio-batzordeak baloratuko ditu.

## **ZORTZIGARRENA.- EBAZPENA**

1.- Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia ebatziko du dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta.



2.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpena, Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenetarako.

3.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera.

4.- Osasun-arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunetan lanpostu bat esleitze kasuetan, hura onesteko ebazpena emandakoan, dagokion egoera edo destinoa esleituko da zuzenean, ikasturte-hasierako Esleipena hasi baino lehen, egokitzapenak edo esleipenak beste ikastetxe batera lekualdatzea ez dakarren kasuetan.

Era berean, Balorazio-batzordeak, langileak lanpostu jakin bati atxikitzea proposatu ahal izango du, horretarako zertzelada bereziak gertatzen diren kasuetan.

Destinoko ikastetxez aldatzea dakarten gainerako kasuetan —pertsonalak behin betiko destinoa duen ikastetxea ez den beste ikastetxe batera, edo behin betiko destinoa ez duen pertsonalari eragiten dionean—, langileek beste lanpostu bat lortzeko ikasturte hasierako Esleipenean parte hartuko dute, dagokion txandan.

## **BEDERATZIGARRENA- ONDORIOAK**

Deialdi honen babespean irakaskuntza ez diren eginkizunetan zuzenean eskolak ez emateko baimendutako zerbitzu-eginkizunak, eskola-jardunaren murrizketak eta zerbitzu-eginkizunak 2019/2020 ikasturtean zehar egongo dira indarrean, eta interesdunak ezin izango die epealdi horretan uko egin.

Lekualdatze-lehiaketaren emaitzaren ondorioz deialdi honen bidez lortu nahi ziren helburuak behin betikoz lortzen diren kasuetan, lekualdatze-lehiaketaren bidez lortutako lanpostuan hasiko da interesduna.

Zerbitzu-eginkizuna onartzen zalon pertsona zerbitzu aktiboa ez den bestelako egoeran balego, zerbitzu-eginkizunerako esleipena zerbitzura itzultzearen mende egongo da; pertsonak berehala zerbitzura itzuli beharko du, eta aldi berean emango zaio zerbitzu-eginkizuna.

Behin betiko jabeek beren jatorrizko lanpostuari eutsiko diote kasu guztietan, eta beste lanpostu batean hasten direnean, zerbitzu-eginkizunen egoeran egongo dira.

Deialdi honetan osasun-arrazoiak direla-eta parte-hartzeko aurreikusita dauden modalitateak onartzen direnean, Prebentzio-zerbitzuak segimendua egingo die.

## **HAMARGARRENA- DATU PERTSONALEN BABESA**

Eskatzaileek ematen dituzten datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira; fitxategi horren helburua deialdi hau kudeatzea izango da. Fitxategiaren arduraduna Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza izango da. Datuak atzitu, zuzendu, ezabatu, tratamendurako mugak jarri, eramangarritasunerako eskubideak erabili, ezereztu eta aurka egin nahi izanez gero, bertara jo behar da: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua, betiere, izaera pertsonaleko datuen babesari eta titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzko legediko aurreikuspenetara egokituko da (*Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta garapeneko araudia*).



Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza Saileko webgunean (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>) argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

### **HAMAIKAGARRENA- ORDEZKO ARAUDI APLIKAGARRIA**

Ebazpen honek prozedurari eta kide anitzeko organoen funtzionamenduari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarri izango dira *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea* eta *Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea*.

### **HAMABIGARRENA- ERREKURTSOAK**

*Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak*, 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 1ean.

JON AGUIRRE HUERGA  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA





**ZERBITZU-EGINKIZUNAREN ESKAERA / SOLICITUD DE COMISIÓN DE SERVICIOS  
DEIALDI OROKORRA / CONVOCATORIA GENERAL**

**1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES**

Abizenak eta izena / *Apellidos y nombre:*

NAN / *DNI:*

E.Z.P. / *N.R.P.:*

Jaiotze-data / *Fecha de nacimiento:*

Lan harremana / *Relación de empleo:*

Karrerako funtzionarioa / *Funcionario/a de carrera*

Praktiketan dagoen funtzionarioa / *Funcionario/a en prácticas*

Bitarteko funtzionarioa / *Funcionario/a interino/a*

Lan-legepeko finkoa / *Laboral fijo*

Lan-kontratu mugagabeduna / *Laboral*

*indefinido* Egiaztatutako H.E. / *P.L. acreditado:*

Helbidea / *Domicilio:*

PK / *CP:*

Herria / *Localidad:*

Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:*

E-maila/ *E-mail:*

Telefona / *Teléfono:*

**2. GAUR EGUN LANEAN ARI DEN IKASTETXEKO DATUAK  
DATOS DEL CENTRO EN EL QUE PRESTA SERVICIOS ACTUALMENTE**

Ikastetxea / *Centro:*

Herria / *Localidad:*

Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:*

Telefona / *Teléfono:*

**3. MODALITATEAK (BAKARRA AUKERATU) / MODALIDADES (ELEGIR SÓLO UNA)**

**1.** Norbere osasun-arrazoi larriengatik zerbitzu-eginkizun bidez kidego bereko irakasle-lanpostu bat esleitzea, lanpostu horren ezaugarriak eta lanpostu hori betetzeko baldintzak eskatzailearen premiekin bat badatoz / *Asignación mediante comisión de servicios de un puesto docente del mismo Cuerpo cuyas características y condiciones de desempeño se adecuen a las necesidades de la persona solicitante, por motivos propios de salud grave.*

**1.1** Eskatzailearen behin betiko destinoko ikastetxe berean / *En el mismo centro de destino definitivo de la persona solicitante.*

**1.2** Eskatzailearen behin betiko destinoko ikastetxea ez den beste ikastetxe batean / *En otro centro distinto del que la persona solicitante tenga destino definitivo.*

Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:*

**1.3** Behin betiko destinorik ez duen eskatzailea / *Persona solicitante que no tenga destino definitivo.*

Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:*

**2.** Osasun-arrazoi larriengatik klase-orduen 1/3ko murrizketak aldi baterako baimentzea, ohiko irakaskuntza-lanean aritzea zailtzen duten egoeretan / *Autorización temporal de reducciones de 1/3 de horas lectivas por motivos de salud grave en los supuestos de dificultad de desempeño de la tarea docente ordinaria.*

**3.** Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik, zuzenean eskolak ez emateko aldi baterako zerbitzu-eginkizunak / *Comisiones de servicios temporales destinadas a funciones de no impartición de docencia directa por motivos de salud grave, o extraordinariamente, por otros motivos suficientemente contrastados.*

\* **Oharra / Aviso:** Osasun-arrazoi larriengatik egoera horretan 2 ikasturte edo gehiago daramatenek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute eskaera justifikatzeko: / *Aquellas personas solicitantes que ya lleven 2 o más cursos escolares en esta situación por motivos de salud graves deberán presentar la siguiente documentación que justifique su solicitud:*

- 2019/2020 ikasturtean zehar adina dela-eta erretiroa hartzeko borondatea idatziz adierazteko idazkia (deialdiaren ebazpenaren laugarren artikuluko 3.2 puntua) edo, / *Declaración por escrito de su voluntad de solicitar la jubilación por razones de edad durante el curso escolar 2019/2020 (Punto 3.2 del artículo cuarto de la Resolución de la convocatoria) o,*
- Organo eskudunaren aurrean aurkeztutako Behin Betiko Ezintasunaren aitortpena eskatzeko inprimakiaren kopia. Salbuespen dira dagoeneko eta 2018/2019 aurreko deialdiaren bidez eskabide hori izapidetu dutenak / *Copia de la solicitud de reconocimiento de Incapacidad Permanente presentada por la persona solicitante ante el órgano competente, con excepción de aquellas personas que ya hayan tramitado dicha solicitud a través de la convocatoria anterior 2018/2019.*

Egoera honetan dauden pertsonak derrigorrez ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute / *Las personas que estén en esta situación deberán presentar obligatoriamente la siguiente documentación:*

- NANaren fotokopia / *Fotocopia del DNI*
- Dokumentazio medikoa (gutun-azal itxian) / *Documentación médica (en sobre cerrado)*



**4.** Zerbitzu-eginkizuna senideen gaixotasunarengatik / *Comisión de servicios por razones de enfermedad de familiares.*

Familia harremana/ *Vínculo Familiar:*

**5.** Zerbitzu-eginkizuna hautetsia izateagatik / *Comisión de servicios por desempeño de cargo electivo.*

Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:*

#### 4. ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / *DOCUMENTACIÓN ADJUNTA*

##### MODALITATEKA / *POR MODALIDADES*

##### **1-2-3** MODALITATEAK / *MODALIDADES:*

- Osasun txostenak sobre itxian / *Informes médicos en sobre cerrado*

##### **4** MODALITATEA / *MODALIDAD:*

- Osasun-txostenak gutun-azal itxian / *Informes médicos en sobre cerrado*
- Familia Liburua / *Libro de Familia*
- Eskatzailearen eta senitartekoaren Erroldatze egiaztagiria / *Certificado de padrón de solicitante y familiar*

##### **5** MODALITATEA / *MODALIDAD:*

- Hautetsia izatearen egiaztagiria / *Certificación de cargo electivo*
- Bateragarritasuna onesten duen ebazpenaren kopia. Halakorik ezean, bateragarritasun eskabidearen kopia / *Copia de la resolución que autoriza la compatibilidad. En su defecto, copia de la solicitud de compatibilidad*

Tokia / *Lugar:*

Data / *Fecha:*

Sinadura / *Firma*

Eskabide-orri honen jasotako datu pertsonal guztiak fitxategi automatizatu batera sartuko dira, deialdi hau kudeatzeko. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren erantzule, eta beragana jo beharko da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezereztzeko, eramateko, aurka egiteko eta datuen tratamendua mugatzeko eskubideaz baliatzeko. (Donostia-San Sebastian kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Los datos contenidos en esta instancia formarán parte de un fichero automatizado de datos personales cuyo objeto será la gestión de esta convocatoria. El responsable de este fichero es la Dirección de Gestión de Personal y ante ella podrán ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, supresión limitación del tratamiento, portabilidad y oposición. (C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).